

ADMINISTRARIEN LAU LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIAREKIKO LEHENENGO ARIKETAKO EMAITZEI BURUZKO ERREKLAMAZIO EBAZPENEN AKTA.

Oiartzunen, bi mila eta hemeretziko martxoaren zazpian, osteguna, goizeko zortzi t'erdietan, Udal honen langilesaileko *Administrarien lau lanpostu* betetzeko Oiartzungo Udalak deituriko lehiaketa-oposaketa irekiko probak neurtzeko eratzen den Epaimahaiaren ondorengo kideak bildu dira Udal-Liburutegian:

Mahaiburua:

Jose Manuel Aduriz Cazabon, *Oiartzungo Udalaren Langileria-Arduraduna*.

Mahaikideak:

Maria Jesus Otaegi Irureta andrea, Udal Kontuhartzailea.

Myriam Goikoetxea Zapiain andrea Gizarte Zerbitzuetako Arduraduna.

Miren Josebe Ibarguren Aduriz andrea, udal Administraria.

Xabier Iriondo jauna, IVAP-ek izendaturikoa.

Idazkaria:

Belen Goya Landa, udal Administraria.

Beraz Epaimahai Kalifikatzailearen kide guztiak bertan aurkitzen direnez gero, Epaimahaiaren eraturik geratu da lehen aipaturako egun, leku eta orduan, honakoa erabakiz aho batez:

1.- Lehenengo ariketa zuzendu eta emaitzak argitaratuta gero erreklamazioetarako jarritako epearen barruan aurkeztu direnak ebatzea, ondorengo zehaztapenekin:

1) AMAIA ABENDAÑO MUJICA.

Alegazioa:

"17 eta 32 galderak erreklamatzeko dituzte."

- A) 17ganean, a) aukerako "soilik" hitza soberan dagoela, eta horregatik a) aukerako esaldi osoa, b) aukerako esaldi osoarekin bat eginez, emaitza kontraesan hutsa litzatekeela, eta ondorioz erantzun zuzena "D" aukera dela; eta hori onartu ezean, galdera hori baliogabetzat jotzea.
- B) 32ganean, zuzentzat ematen den a) aukera ez dela zuzentzat, Legearen 16.1 artikulua arabera esaldiaren honako zatia: ... **administrazio horri lotutako edo haren mendeko edozein** ..., falta delako; ondorioz "D" aukera dela zuzena, eta hori onartzea

Ebazpena: Aurkaratutako bi galderak berrirakurritu gero,

- A) **Galderarekiko alegazioa EZESTE**A, honako arrazoiengatik: 17. Galderako "soilik" hitzarekin, izangaiek erantzun hori bazter dezaten nahi delako, hau da, galderaren tranpa hor dagoela, hitz hori gabe erantzuna balekoa litzateke alegia eta orduan bi erantzun zuzentzat eman beharrekoak; horrez gain b) aukerako "aurrekoaz gain" hitzek "soilik" hitza baztertu edo baliogabetzen dutela, hauteskunde legediak, zinegotziak hautatzeko prozedura bakarra ez duelako arautzen; azken batean,

gramatika semantika kontua dela eta testuingurutik atera gabe planteamendua zuzena dela, b) aukerakoa delarik erantzun zuzenena.

- B) Galderarekiko alegazioa ONESTEA,** bera luze eta zabal eztabaidatu ondoren, zuzenki planteatuta ote dagoen ez delako argi ikusten, hau da, arrazoibidezko zalantzak eragiten dituelako a) aukerako idazkerak. Onespen horren ondorioz, 32. galdera baliogabetzea eta 41gna hartzea bere ordeztu, hau da ordeztu lehenengo galdera. Epaimahai-Buruak alegazioa onartzearen aurka bozkatu du.

2) IMANOL URBIETA AZKUE.

Alegazioak:

“Emaizetan azaltzen denez galdera bat erantzun gabe utzi zuela eta berak denak erantzun zituela. Eskatzen du jatorrizko orria berrikusi eta emaitza zuzentzea”.

Ebazpena: Jatorrizko erantzun-orria berrirakurrita gero, alegazioa EZESTEA, lehenengo galderan bi ilaratan markatu duelako, behekoan borobila txoil bete ez badu ere; gainera azterketa hasi aurretik adierazi zitzairen bezala, irakurle optiko bidez zuzendu dira azterketak, eta erantzun-orriaren atzealdeko jarraibideetan argi eta garbi adierazten da nola bete behar diren horiek, eta hain zuzen ere erantzun bat ezeztatze goian eta behean markatu behar dela diote haiek, hori izan delarik irakurle optikoak antzeman duena.

3) OIHANA SANZBERRO ARACAMA.

Alegazioak:

“Zuriz kalifikatu zirela bere erantzun guztiak; “ezeztaketan” lerroan” erantzun zituela, eta onartzeko goiko lerroan egin balitu bezala eta Epaimahaiak berriro zuzentzea azterketa”.

Ebazpena: erreklamazioa aztertu ondoren, alegazioa EZESTEA,

- a) Erantzun-orriaren atzealdeko jarraibideak oso argiak direlako; zentzu honetan *“... goiko ilaran aukerari dagokion laukitxo bat”* diote, eta 176 izangaietatik berak eta beste lauk egin dute akats hori, besterik ez.
- b) Azterketa hasi aurretik denbora eman zitzaielako erantzun-orriaren atzealdeko jarraibideak irakurtzeko.
- c) Baita adierazi zitzaielako azterketen zuzenketa irakurle optiko bidez egingo zela; horren ondorioz Epaimahaiak ezin du irizpidea aldatu eta azterketa bat bera ere zuzendu.

4) MIREN JOSUNE AIZPURU MANTEROLA.

Alegazioak:

“Lehenengo lau galderak, erruz, ezeztatze lerroan erantzun zituela, eta ez dutela ezer ezeztatze eta ondorioz erantzuntzat jotzea eta emaitza aldatzea”.

Ebazpena: erreklamazioa aztertu ondoren, alegazioa EZESTEA,

- a) Erantzun-orriaren atzealdeko jarraibideak oso argiak direlako. Zentzu honetan, *“... goiko ilaran aukerari dagokion laukitxo bat”* diote, eta aurreneko lau galderak ez beste guztiak dagokion ilaran erantzun ditu.

- b) Bere erreklamazioan aitortzen duenez, bere erruz egindako akatsa izan delako.
- c) Azterketa hasi aurretik denbora eman zitzaielako erantzun-orriaren atzealdeko jarraibideak irakurtzeko.
- d) Baita adierazi zitzaielako azterketen zuzenketa irakurle optiko bidez egingo zela; horren ondorioz Epaimahaiak ezin du irizpidea aldatu eta azterketa bat bera ere zuzendu edo irakurle hark emandako emaitza aldatu.
- e) Akats hori konpondu zezakeelako beste orri bat eskatuta.

5) **AMAYA ZABALA BENGOTXEA.**

Alegazioak:

“Zuriz kalifikatu zirela bere erantzun guztiak; beheko lerroan erantzun zituela ulerturik, plantila orokorretan bezala, ez zela hizkien gainean markatu behar baizik eta hizkien azpiko borobiltxoetan. Konturatu dela bost pertsona daudela egoera berean eta eskatzen du, azterketa berriro zuzentzea, beheko lerroko emaitzak kontuan hartu eta ontzat emanik”.

Ebazpena: erreklamazioa aztertu ondoren, alegazioa EZESTEIA,

- a) Erantzun-orriaren atzealdeko jarraibideak oso argiak direlako; zentzu honetan “... goiko ilaran aukerari dagokion laukitxoan belztu” diote, eta 176 izangaietatik berak eta beste lauk egin dute akats hori, besterik ez, eta bost horietatik hiruk ez dute erreklamaziorik egin.
- b) Azterketa hasi aurretik denbora eman zitzaielako erantzun-orriaren atzealdeko jarraibideak irakurtzeko.
- c) Baita adierazi zitzaielako azterketen zuzenketa irakurle optiko bidez egingo zela; horren ondorioz Epaimahaiak ezin du irizpidea aldatu eta azterketa bat bera ere zuzendu.

2.- Onartutako alegazioa kontuan harturik azterketa guztiak berriro zuzentzea eta horren ondorioz suertaturiko behin betiko emaitzak onartzea eta web orrian argitaratzea.

3.- IVAP-etik adierazi dutelarik bigarren ariketa zuzentzeko erantzun zuzenen taula behar dutela eta horrekin batera erantzun okerrak zehatuko ote diren eta zenbatean, Epaimahaiak gai aztertu ondoren, erabaki du, aurreko azterketako irizpide berbera jarraituz, heren batean zigortzea, hau da, hiru galdera okerrekin erantzun zuzen bat galtzea.

Egintza honen inpugnazioa egin daiteke, deialdia arautzen duten oinarrien hamabigarrenean ezarritakoaren arabera.

Eta hau besterik ez zelarik bilkura honen xedea egintza amaitutzat eman da goizeko hamar t'erdietan, Akta hau idatz dadin xedaturik, hori guztia ziurtatzen dudalarik.